

2

0

DK

Egitura
eta balantze
ekonomikoa

2

1

Egitura eta balantze ekonomikoa

Administrazio kontseilua

Lehendakaria
Eneko Goia Laso

Lehendakariordea
Jon Insausti Maisterrena

Kontseilariak

EAJ-PNV

Nekane Mendarte / Jaione Hervás

EH BILDU

Garbiñe Alkiza / Zigor Etxeburua

PSE

Duñike Agirrezabalaga / Cristina Lagé

PP

Borja Corominas

PODEMOS

Aitzole Araneta

Zuzendaritza taldea

Zuzendari gerentea:

Jaime Otamendi

Zuzendariaren teknikari laguntzailea:

Imanol Galdos

Administrazioa eta Baliabideak: **Rebeka Gallastegi**

Ekonomia eta Fintzantzak: **David Feijo**

Liburutegiak: **Arantza Urkia**

Kultur Etxeak: **Jon Aizpurua**

Zinema: **Josemi Beltrán**

Komunikazioa eta Irudia: **Jaione Askasibar**

Festak: **María Jesús Torres**

San Telmo Museoa: **Susana Soto**

Musika: **Miguel Martín**

Ekoizpena: **José Ignacio Abanda**

Antzerkia eta Dantza: **Norka Chiapusso**

2021ko Aurrekontua



Gastuak guztira:

25.928.920€



Diru-sarrerak guztira:

3.728.920€



Udalaren diru-ekarpena:

22.200.000€

2021. urtean, urrats garrantzitsuak egin ziren **Donostia Kulturak** nazioartean duen kokapena sendotzeko bidean. Inflexio-puntua markatu zuen mugarria, ezbairik gabe, diplomazia publikoari eta diplomazia kulturalari buruz antolatutako nazioarteko ikastaroa izan zen, uztailean, **Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Ikastaroen** barruan. Ikastaroak baitezpadako arrakasta izan zuen, mundu osoko adituak erakarri baitzituen, tartean mundu mailan ezagun-ezagunak zirenak, eta hogeita lau herrialdeetatik etorritako ehun lagunetik gora bildu zituen, oso soslai eta jatorri desberdinetakoak denak ere. Komunikabide nagusien interesa erakarri zuen ikastaroak, eta eragin nabarmena izan zuen sare sozialetan.

Donostia Kulturak ikastaroa antolatzen eta kudeatzen erakutsitako lidergoak indartu egin zuen nazioartean duen lekua. Testuinguru horretan, uztaileko ikastaroaren ondoren, beste zenbait jarduera egiteko asmoa dago, etorkizunari begira erabakigarria izango den bidea sendotzeko xedez. Abenduan, gastrodiplomaziari buruzko lehen ekitaldia egin zen, eta arlo horretako aditurik behinenek hartu zuten parte. Berriz ere, ekitaldiak sekulako erantzuna jaso zuen, ehun lagunetik gora izan baitziren parte-hartzaileak, eta gainditu egin baitzen uztaileko ikastaroan ordezkari izan zuten herrialdeen kopurua. Egun, inoiz baino gehiago, mundu guztiko kultur erakundeek sinergia berriak eta nazioarteko sareak lortu nahi dituzte beren ekinbide-eremua zabaltzeko, mundu gero eta konektatuago honetan.

Alde horretatik, **Donostia Kulturaren** nazioarteko erreferentzialtasuna gero eta handiagoa da egunetik egunera. Gero eta maizago jasotzen ditugu gonbidapenak mundu guztiko erakunde eta instituzioetatik, nazioarteko proiektuetan aholkularitza, lankidetzak eta parte-hartzea eskatuz. Nabarmentzekoak, alde horretatik, instituzio akademikoek egindako eskari ugariak, erreferentziazko eredutzat ikusten baitute **Donostia Kultura** kultur politiken eremuan. Hogeita hamar urtetik gorako esperientzia ezaugarri eztabaida ezina da arlo akademikoan ari direnentzat. Bestalde, akademiaren eta **Donostia Kultura** bezalako erakunde baten arteko lankidetzak, kultur politiken praktikara begira, behar-beharrezko bidea sinalatzen du etorkizunari buruz ditugun desafio izugarriei aurre egiteko.

DONOSTIA KULTURAREN ZEHAR-PLANAK:

Euskara Erabiltzeko Plana

Euskara Planaren ekintzekin jarraitu dugu. 2021an bereziki aipatu daiteke Euskara Plana aurrera eramateko daukagun egituraren hausnarketa egin dugula eta egitura berri eta indartua lortu dugula.

Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasun Plana

2021ean gogor lan egin dugu Donostia Kulturaren Berdintasun Plan berria diseinatzen eta lortu dugu. Dagoeneko prest daukagu hurrengo urteetan oinarri izango dugun Berdintasun Plana.